

Sukaldean aritzeko sei trikimailu

1. Arrautza bat txarra dagoen ala ez jakin nahi baduzu, uretan sar dezakezu. Ona badago, behean geratuko da, baina flotatzen badu, ez dizut gomendatzen arrautza hori jatea.
2. Zalantza daukazu arrautza bat gordina den ala egosita dagoen? Emazkiozu bueltak mahai gainean: azkar mugitzen bada, egosita dago.
3. Freskagarria astintzen baduzu edo erortzen bazaizu, hobe da ireki aurretik pixka bat itxarotea. Baina pazientziarik ez badaukazu, hau da aukerarik onena: jarri mahai gainean eta marraz itzazu zirkuluak.
4. Zuri ere eraso egiten dizu olioak? Soldadu-trajea (jantzia) erabil dezakezu, baina hobe da zartaginean irin pixka bat botatzea, ezta?
5. Ezin baduzu kristalezko ontzia ireki, eskaiozu indartsuagoa den norbaiti. Ez badago inor, zuk ere egin dezakezu: jo taparekin ertz baten kontra. Baina kontuz! Gogoratu garrantzitsua dela kristalarekin ez jotzea!
6. Gustatzen zaizun pertsona noodle-ak jatera gonbidatu baduzu, komeni zaizu aholku honi jarraitzea: jarri gomatxo bat makiletan eta paper bat bi makilen artean. Horrela konkistatuko duzu.